

BIZKAIKO FORUA, BASERRITARRA EZ OTE?

Berrikitan plazaratu zaigu EGUNKARIAN (*«Foru Berria eta Baserria» 1993-IV-13*), Javier Erize EHNE-ko abokatu prestua eta «Karmel» aldizkari honen kolaboratzailea. Autua, joan den urtean onartu eta argitaratu (uztailaren leian) eta horrez gero, hiru hilabetetako «vacatio legis» unearen ostean indarrean dugun (1993. urteko azaroaren 7tik) Euskal Herriko Foru-zuzenbide Zibilar buruzko legearen bidez etorri da.

Bizkaiko Forua eraberritu duen lege hau, ez omen da, legegizon azkar honen ustez, egun baserriak bizi duen errealitatea, eta suposatzen duen «funtsezko produkzioa egitura zaintzeko» tresna mugatu bat baizik. Bide beretik abiatuta, lege berri honetan, Erizeren hitzetan, *«berriz azaldu da baserriarekiko loturaren irudia, eta eman berri den Legeak berak bitzez bitz aitortzen du Zioen Adierazpenean «...Foruaren oinarritzko helburua baserriaren iraupena dela...»*

Egia esan, artikulua honek eta areago, bertan ematen den iritziak, aukera paregabea eta atxakia ederra ematen dizkit, Forua eta bere gaurkotzearen eta orohar, foruaren inguruan barreiatu diren hainbat aburu, nire ustez, dagokien lekuan kokatzeko eta

bide batez, erreforma honen esanahaia azaltzeko, nik ulertzen dudari moduan behinik behin. Horretarako badut, eduki ere, forudunak diren lurraldeetako eskribau izateak eman dezakeen hamar urteotako esperientzia apurra.

Eginkizunari lotu eta hasteko, esan beharra dago Erizeren iritziarekin bat natorrela, hein handi batean bederen. Egungo baserriak bizi duen egoera, ez da orain dela bostehun urte bizi zuena (Foru berria 1526. urtekoa da) edo aspaldiagoko garaietara joan gabe, duela berrogei urte bizitzen zuena (Foruaren gaurkotze frankista sasoi horretakoa da, alegia, 1959. urteko Foru Bilduma, orain arte ukipen soil batzuekin indarrean egon dena).

Egia esan, egoera berri honek, irtenbide berriak ere eskatzen ditu, ikuspegi administratibotik batipat. Egunotan, ezin daiteke baserria baserritar edo hobeki esanda, nekazari autonomo eta autarkikoarekin lotu eta are gutxiago, nahastu. Baserritarren arteko sindikatu, kooperatiba eta asoziazionismo edo elkartzeko moeta desberdinak direla medio, azken urteotako euskal baserrian, errealitate berri baten aurrean gaudela ezin uka. Esan gabe doa bat natorrela Erizerekin zuzenbide pribatuzko aldarre hutsa erlatibizatzen duenean baserriaren zainketarako prozesuan. Honetarako, zeresanik ez dago, beharrezkoak dira bestelako neurriak, batez ere lurralde dagozkionak. Oker ez banago, Jose Luis Lizundia izan zen, Gernikako Batzar Nagusietan Foruaren Lege-Proposamen hau eztabaidatu zenean, lehenez aipatu zuena Erizek oraingoan dakarkigun kontua, hau da, euskal baserriak askoz mesedegarriago izango lukeela Lurralde-Antolakuntzari buruzko legeria, esaterako, forukoa baino. Bistakoa denez, nabari zaio honako kezka hau, honelako autuetan dabilenari eta bestaldetik ere, aintzakotzat hartzekoa.

Baina honekin batera ere, beste zerbait badago. Foruaren balioa erlatibizatzeak ezin du, inola ere ez, bere eragina gutxietsi.

Beste lege batzuk ere ezinbestekoak izango zaizkio euskal baserriari, baina bi aldarateok konbinatuz, oreka berri batean: alde batetik, borondatearen autonomia, zuzenbide pribatukoa nahiago bada, non foruak oraindik orain ere bere zeresana baduen eta bestetik, administrazioaren eskuhartzea, zuzenbide administratiboaren mundukoa, hain zuzen ere, botere publikoak lur eta nekazal-ustiapenen defentsarako politika demigorrezkoa.

Oreka herri honek ez du esan nahi bi ikuspegiok banatzea, elkartzea baino, ezin baita ordenamendu juridikoa eta are gutxiago eguneroko errealitatea, arlo itxietan kokatu, edozein legegilek ondotxo dakienez.

Honetan datza, nire ustez, foruaren balioa, pertsonari askatasun eremu zabal bat eskaintze honetan. Nola, ordea, uztartu edo konbinatu hori baserriak duen egoera latzarekin? Berehalakoan entzungo ditugu mila aldiz errepikatutako zioak: zertarako askatasuna, bizibidea ahalbideratzen dituzten baliabide ekonomikorik gabe? Ezertarako ere ez, jakina. Baina askatasun erabatekoa bezain arduragarria izan daiteke, kontu honetan, administrazioaren eskuharmen osoa.

Forua egokitzen ahal da eguneroko baserriaren beharrianetara? Erizek kolokan jartzen du hori: *«Tresna ordezkagaitza izan da Forua aspaldiko baserriaren defentsarako, baina tresna nabiko mugatua da gaurko nekazal ustiategiaren funtsezko produkzio-egitura zaintzeko»*.

Gai honetan ere bestelako ñabardura egin beharra dago. Agi denez, eta operadore juridikoen bulegoetan bizi dugun errealitatea da hauxe, hainbat baserriarrek ez dituzte erakunde hauek erabiltzen Foruaren jomugak erdiesteko, hots, baserriaren batasuna jagoteko, kontrakoa egiteko baino. Baieztapen honi darraion ondorioa, halare, ezin daiteke erabatekotzat hartu. Badira baserriaren batasuna hausten dutenak, seme-alabeei lur zati

desberdinak esleitzeko, baina baditugu, baita ere, erromantizismorik gabe baserriaren batasunari tinko eusten diotenak, nekazal ustiapen honen beharretan bizi direlako. Orohar, baserri konkretu horrek izan ditzakeen bizimodua eta indarra izaten dira erabakiorrak.

Honetara dator, etorri ere, lege berria, Foruaren hariari segida ematera, nekazal ustiapenaren batasuna mantendu nahi duen horri lanabesak eman eta orobat ahalmen batzuk eskura jartzera, eta ohizko sistema juridikoek (Espainiako Kode Zibilak barne) oztopatu dituzten baliabide hauek antzaldatzera, azken boladetako joera berriek oharterazten dizkigutenez.

Baina Forua ez da horretan agortzen. Forua ez da baserrian amaitzen, honetatik indar nagusia atera badu ere. Zioen Adierazpenak dio, esan ere, Erizek transkribatzen duena: «Foruaren oinarritzko helburua baserriaren iraupena baita».

Gakoa, halare, transkribitu duenean baino aldameneko beraba ixilerazietan dago, nire ustez, honela baitio ahapaldi osoak:

«Hirilurretan kokaturiko ondasunen ordainbidezko inorentzeetan tronkalekotasuna nabaspilotsua izan daiteke eta ez zaio baserrialdeetan bezain beharrezko erizten, Foruaren oinarritzko helburua baserriaren iraupena baita. Hori dela eta, II. Idazpuru hau 114. atalean (V. Idazpuru) ezarritako arauaz osatzen da, lehentasunez eskuratzeko eskubideetatik eta saka—eskubidetik salbuetsi egiten dela hirilur dena edo izatekotan dena».

Beraz, hirilurak ere helburutzat ditu Foruak. Eta honela izatea ezinbestekoa zuen Foruak, itolarri eta desagertze prozesutik aldendu nahi bazuen bederen. Egun, Forua aplikagarria duten hainbat Elizate populutsu badira gure artean: Getxo, Ezkerraldeko batzuk, Zornotza etabar. Honetan bizirik dago Forua giro

hirilurrean eta bere erakundeak aplikagarriak ezezik, estimatuak ere izaten dira. Komisariaren bidezko testamentua, esaterako, kanpotik etorri eta bizkaitar egin diren etorkinek ere erruz erabiltzen dute.

Ondorioz, Foru Lege Berri honen filosofia bikoitza izan da: lehenez, baserria eta baserritarrei eskaintzea, eraberritu eta birmoldatua, betidanik izan duena eta era berean, lehendik ere aplikagarri izan den giro urbanoetan tresna berbera erabilgarria izateko modua tajutzea. Beti ere, famili ondarearen batasuna mantendu nahia xedetzat hartuta.

Hori berori, bizi ditugun aldi gaitz eta neketsuotan ez da jomuga txikia.

Baserritarrak, beraz, mendetan eskura izan dituen mekanismo juridikoak ere baditu, hobetu eta egokituak. Erlatiboak direla? Zeresanik ez dago. Baina ez horraitio txikienak edo apalenak. Baserriaren zainketarako beste teknika eta errealtate batzuk beharrezkoak direla? Ados. Baina ez dezagun ahaztu lursail-bilketa eta abarrekoak ezagutzen dituzten lurretan ere, Bizkaiko Foru Zuzenbideak dituen lanabes juridiko zenbaitzu (eta ez garrantzi gutxiena dutenak, hala fede) ezarri direla, on eta profitagarri iruditu zitzaizolako lur horietako botere legegileari. Hortxe dago, Karmel aldizkari honetan inoiz komentatu izan dudana *«Ley 49/1981 del Estatuto de la Explotación familiar agraria»* delakoa (*«KARMEL» aldizkaria, 1987-3, 28-33. orrialdeak*). Lege honek, bestalde ere, adibide ederra eman diezaguke, gureak ere zenbait kasutan «esportagarri» direla konturatzeko.

Zernahi gisaz, lege berri honek duen eta, antza denez, ongi plazaratzen jakin ez dugun gogoia, ez da lehen azaldutakoaren arabera baserrian agortzen; baserriarekin batera ere, giro hiritarrean murgildu nahi du bere egitekoa. Etorkizunari buruz,

bi aipamen egingo nituzke nik, Lege honen Zioen Adierazpenetik, Foruaren bi ikuspegi hauek nola uztartzen diren azaltzeko:

«Horrela bada, euskal legelariak eraberritu eta gaurko mundura egokitu behar dute Foru-Zuzenbide zaharra, Bizkaian eta Araban idatzita iraun duena eta Gipuzkoan, dagoeneko badakigunez, obituraz baino gorde ez dena. Kontuz egin beharreko lana da eta gaur eguneko euskal gizartearekiko beginunerik bandienarekin burutu beharrekoa, gizarte hori ezin baitaiteke maiteen dituen erakundeok gabe utzi, ezta berez errotuta ez dituen erakundeak hartzera behartu ere, beste alor batzuetan beharrianak aldaketa sakonak egitea bideratzen badu ere, Zuzenbide Zibila ezin duelako aurrera egin herritarrek erakundeok onartu eta orokorrean eurenganatu gabe».

«Edonola ere, guzti hori ez dadila izan eragozpen gure Unibertsitateetan, zorionez, indartsu sortu diren ikerketak ugaritu daitezen, euron bidez eraberritze eta lege-aldaketak eragin baitaitezke, ezarpen-esparruan bertan ere, Zuzenbide Zibil berriztua eta gizarte-aldetik aurreratua lortu arte. Bilatu behar ditugun euskal Zuzenbide Zibilaeren baterako berezitasunak agertuz joango dira eurotan sakondu eta aztertu ahala, oraingoz idatziz dauden sistemak eta euren ezarpen-esparru zehatzek eragin dezaketen erakarpen-indarra ekidin ezinezkoa delarik».

Forua, zuzenbide pribatuzko izate huts batetik abiatuta, ez da nahikoa, baina hortik ere ez dator, beharrezkotzat jotzen ditudan beste arau batzuen azpian egon behar denik, haien aldamenean baizik, batez ere pertsonari dagokion borondatearen autonomiaren eremuan, hori baita, pertsonen arteko elkarkidetzaz eta Administrazioaren eskuharmen eragingarri baterako garantiarik onena.

Hori gabe, zail samarra izango du euskal baserriak irautea. Honetan eta neurri berean, Erizek proposatzen dituen beste irtenbide batzuekin, etorkizun hobeago baten osagarriak nabari daitezke Euskal Herriko nekazal-ustiapenen gerogarrenean.

Andres Urrutia.